

Danena-Olaederrakoak munduko onenekin lehian

ZIZURKIL ▶ Teddy Martinez eta Ekaitz Kortajarena pultsulariek 5. eta 6. postua lortu dute Albanian

ETORKIZUNA ▶ «Uste dut aukerak dituztela Europako Txapelketara joateko», dio Batis Kortajarenak ▶ 4

LEITZA ▶

Eneko Aizpuru aske geldituko da gaur

60.000 euroko bermea ordainduta ▶ 7

Atila y los Unos taldearen musika 'inbasioa'

TOLOSA ▶ Duela bi hamarkada sortutako taldea zuzenean ariko da Frontonen ▶ 2

ALTZO ▶

Ekuadortik ihesi, «indigenen protestak bultzatzea» leporatuta ▶ 5



HITZA



TOLOSA ▶ MUSIKA

Bi hamarkada eskenatoki gainean

Kontzertu berezia eskainiko du bihar gauean
Atila y los Unos talde tolosarrak Fronton kafetegian



Atila y los Unos-eko taldekideak; erdian, Atila, kapelarekin. HITZA

E. EZEIZA

Hogei urte daramatzate eskenatoki gainean Atila y los Unos musikari beterranoek. Horrela, urteurren honekin batera eta Tolosaren 750 urteak direla eta, kontzertu berezia antolatuko dute bihar. Herenegun iluntzean Fronton kafetegian aurkeztu zuten egitasmoa, eta toki berean emango dute saioa, 22:30ean. Orain dela urtebete leku berean jo zuten musikariek, eta izan zuten arrakasta eta gero, eskenatokia errepikatzea erabaki dute. Baina oraingo honetan beste ikuspegi bat eman nahi diote. Hala ere, hasierako umorea, parrandarako gogoa eta ilusioa ez du galdu seikote honek.

Arraroa den arren, oraindik

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. ETaren su-eten iraunkorra dela-eta bako prozesua gertuago ikusten al duzu? Erantzun egokia emango al du Espainiako Gobernuak? Zer aldatuko da? Sartu gure web orriko eztabaida atalean eta eman zure iritzia.

ere hasierako taldekide berek jarraitzen dute Atila y los Unos-en: Jesus (Atila), abeslaria; Javi, baxua; Iñaki, gitarra; Xabi, bateria; Koldo, teklatura; eta Rober, *rototoiekin*. «Zuzeneko taldetzat» jotzen dute beren burua. Abeslaria «showman» bat da, eta abestiaren araberako mozorroak egiten da. «Jendearekiko komunikazioa» bilatzen dute, «entzuleek parte hartzea, animatzea eta dantza egitea». Taldearen «helburua ez da milaka disko saltzea, baizik eta ongi pasatzea eta jendearengana musika bidez hurbiltzea». Horregatik, nahiago dituzte jende gutxi biltzen dituzten eskenatokiak, publikoarengandik ahalik eta hurbilen egoteko.

Atila abeslariaren esanetan: «Oriako soina» egiten dute, Tolosa inguruko eragina baitute. Beren kontzertuetara hurbiltzen denak mota guztietako musika entzun ahal izango du: reggae-a, rock & rolla... Errepertorioan hastapenetako nahiz oraingo abestiak dituzte. Arrakastaren arrazoiez galdeztuz gero, musikaren kalitateaz, inprobisazioaz eta giro onaz hitz egiten dute, besteak beste, tolosarrrek.

Mundu guztian zehar zabaldu dute beren mudika beterra-

no hauek. Plaza, taberna nahiz gaztetxeetan aritu dira.

Taldearen sorrera

Atila y los Unos orain dela bi hamarkada jaiotako talde gehienak bezala, azpi batean, lagunartean hasi ziren jotzen. Garai haietan Udalekoek kontzertu erraldoi bat antolatu zuten. Bertan, Tolosako talde guztiek parte hartu ahal izango zuten. Baina arazo bat zegoen, gainontzekoei abeslaria falta zitzaien. Horrela, Jesus, egun Atila ezizenez ezaguna, kantari lanetan hasi zen. Musikari bakoitzak bere musika tresnak erosi zituen, eta Jesus «show-a» osatzeko jantziak eta mozorroak.

Seikotearen esanetan, taldearen izena aukeratzeko garaian ez zuten arazorik izan, «ez baitzegoen eztabaidetarako astirik». Aukeraketa egunean bertan, Atila y los Unos zegoen telebistan; «horrela, H-a kendu eta izen honekin geratu ziren».

Hurrengo pausoa konposatuta zizuten abestiak izendatzea izan zen. Abestiak hitzak idatzi zituzten, baina tolosarren esanetan, hau ez zen arazo, Atila-k «inprobisaziorako gaitasun berezia» baitzuen.

PILOTA ▶

Tolosaldeko neskak, trinketearen gorenean

Eskualdeko bi neskek jokatu dute
Gipuzkoako Txapelketako finalean



Manzisor, Arozena, Evaristti eta Urkizu, finalean. HITZA

E. EZEIZA

Nesken Gipuzkoako Trinkete Txapelketako finala jokatu zen pasa den ostiralean Irurako Ametsa trinketean.

Urtero bezala, aurten ere Gipuzkoako Trinkete Txapelketa jokatu dute nagusi mailako neskek. Guztira, 6 bikotek hartu dute parte. Txapelketa otsailaren 17an hasi eta martxoaren 24ean amaitu zen, finalarekin. Norgehiagoka guztian zehar Anoetako Kuku elkarteak nahiko onerik eman zuen. Kuku 1 taldeko Natalia Evaristtik garatutako joko onaren ondorioz, partida erdialdetik aurrera alde pixka bat hartzen joan ziren, eta azken tantoak nahiko erraz lortu zituzten Itsaso Urkizuk eta Natalia Evaristtik. Azkenik, 30 eta 17ko emaitzarekin gailendu ziren Tolosaldekoak. Kuku 2 taldean Nagore Arozena eta Goiatz Manzisor jokalaririk onenak aritu ziren. Kuku 2 taldeak zesio baten ondoren jokatu zuten.

Lau jokalaririk onenak maila handia dute, mundialistak dira, Arozena eta Evaristti 22 urtez azpiko Munduko Txapelketetan arituak dira. Azken hau argentinarra da berez, horregatik herrialdeko selekzioarekin jokatu du. Urkizu eta Manzisor, 22 urteko Munduko Txapelketetaz gain, Munduko Kopan eta Munduko Txapelketa absolutuan arituak dira, eta urrezko dominak lortu dituzte kasu batean baina gehiagotan.

TOLOSA ▶ KULTURA

'Ipuinartean' bideoa

E. EZEIZA

Tolosa 750. Fundazioak eta Ipuinartean I proiektuko batzordeko Aurelio Vicentek egindako Ipuinartean bideo-lana aurkeztuko dute ostiralean. Agerpena arratsaldeko zazpitan izango da, Donostiako Arrasate Kutxa Aretxean.

Bideo honek «kulturaniztasunari buruz galderak sortu eta elkarlana bultzatzeko tres-

na izan nahi du». Honela, elkarrizketa eta irudi metaforiko bidez izen bereko proiektu osoaren eduki guztiak deskribatzen ditu.

Ipuinartean proiektuan kontinente desberdinetako hogeita hamasei artisten lanak bildu zituzten. Beren jatorrizko kulturarekiko desberdina den beste baten ipuin kontaketa oinarritu dira lanak egiteko.

UDALA ▶


Udaleko kideek galderak egiteko aukera izan zuten, arduradunen azalpenen ostean. N. LATABURU

Usabalgo arketako bi bonben huts-egiteak eragin zuen uholdea

Gorostidi-Voith proiektuaren oinarriak onartu zituzten, halaber, bilkuran

NOELIA LATABURU

Herenegun burutu zuen Tolosako Udalak ohiko osoko bilkura, non, saioaren hasieran, Usabalgo Kiroldegian orain dela hamabost eguneko euriengatik sortutako arazoaren berri eman baitzuten. Horretarako, enpresa eraikitzailearen arduradunak, zuzendaritza tekniko eta udal teknikoak izan ziren udalbatzarrean. Funtsean arazoa Usabalgo 15. arketan egon zen; ibaia bere ubidetik ateratzean, bertan zeuden bi bonbek ez zuten funtzionatu eta, ondorioz, Usabalgo bigarren solairua urez gainezkatu zen.

Dena den, azalpenak ez ziren horretan geratu eta, hasieratik, arazoaren nondik norakoak azaldu zituzten. Obrak hasi zirenean, kiroldegirako saneamendu proiektu bat zegoen, Aldundiaren araberakoa —Ikaztegietatik Adunara doan kolektorea—. Behin obrak hasi zirenean, Eusko Jaurlaritzak hartu zuen saneamendua ardurara eta, ados ez zegoenez, proiektu berri bat jarri zuen martxan, Oria ibaiatik igarotzen zena. Hori dela eta, instalakuntza aldatu behar izan zuten, Orian deskargatzeko. Kolektore horren lanak amaitu

bitartean —Europako legearen arabera, 2007rako— behin-behineko eperako neurriak hartuko dituzte.

Egoera berri hau aintzat hartuz, Usabalgo lanen arduradunek arketa estanko bat eraiki zuten, bi bonbekin. Baina ura sartu egin zen, batetik, Eusko Jaurlaritzako lanean kolektorea arketara konektatu zutelako; bestetik, ustez estanko zen arketak zulo batzuk zituela eta bonbak lekuz kanpo zeudelako, ura atera ezin zutelarik.

Hau konpontzeko hainbat neurri hartu dituzte: klaketa bat jartzea saneamendu hodian, ura zentzu bakarrean igarotzen uzten duena. Arketa estankoa egitea. Tuboa blokeatzean barneko ura pasa ezin izatea gerta daitekeenez, *bypass* (bonbeo) bat egitea, gorotzeko uretatik euri urtetara. Eta, larrialdi baterako, eta hasierako proiektura itzuliz, urak Usabalera ateratzea. Maiatzeko lan hauek amaituta izatea aurreikusitako dute.

Gorostidi-Voith proiektua

Bestalde, Gorostidi-Voith eremuko alegazioak ebatzi zituzten, eta toki-babeseko etxebizitzaren erregimen juridikoa arautzeko oinarrien eta eremu



TBekoek protesta egin zuten. N. L.

horretako babes ofizialeko etxeak adjudikatze oinarriak behin betiko onartu zituzten, bilkuraren zerrendako gai bezala. Hala, aldaketa batzuk finkatu zituzte. Esaterako, 2005. urteko errenta aitortpena aurkezteko nahiko izango dute interesatuek, eta ez 2004ekoa.

Izena emateko epea maiatzaren 2an ireki eta irailean amaituko da. Halaber, aurretik sistema antolatuta du Udalak, ilarak ekiditeko helburuz. Txanda 943 69 74 91an egin daiteke edota www.tolosakou-dala.net webgunean.

Bestalde, Tolosa Bizirik-ek protesta egin zuen bilkuran, «2.500 tolosarren bozka bahitua edukitzea eta haien ordezkari zilegiak udaletik baztertuak egotea uka ezinezko boronbaxeria adierazpena delako».

GIZARTEA ▶
Terrazak jartzeko baimena eskaera zabalik da

Tolosako Udalak terrazak jartzeko interesatuta dauden establezimenduei jakinarazi nahi izan die baimena eskaera aurkez daitekeela. Udako denboraldirako baimena, hau da, maiatza eta urria bitartekoa, edo urte osorakoa daude. Eskaerarekin batera terrazaren eskema zehatza aurkeztu behar dute denda interesatuek.

ERLIJIOA ▶
Garizumari buruzko hitzaldiak Santa Marian

Santa Maria parrokiaren garizumari hitzaldiak eskaintzen ari da egunotan. Datoren astean (apirilaren 3tik 7ra) euskaraz garatuko dituzte. Emilio Sotomayor eskolapioa izango da hizlaria, eta bi hitzordu proposatu dituzte: 16:30ean eta 20:00etan, hain zuzen ere. Santa Maria parrokiaren bertan izango dira hitzaldiak.

GIZARTEA ▶
Guraso formazio eguna egingo dute Kirikiñon

Kirikiño aisialdi taldeak, urtero bezala, guraso formazio eguna egingo du igandearekin. Hezkuntza afektibo-sexuala izango du hizpide Eduardo Dovale Muiños psikologoak, nerabeen hezkuntza afektibo sexuarekin adituak. Hirukide Jesuitinetan izango da hitzordua, eta honakoa egitaraua: 10:00etatik 13:30era, otoieta eta hitzaldia (hamaitaketa koarekin); 14:00etan, bazkaria; eta 16:00etan, kirol saioa.

ASIA ▶
Gaintzara irteera antolatuta du Atsedena taldeak

Atsedena taldeak apirilaren 18an, 19an eta 20an Gaintzara joateko irteera antolatuta du katekesiko haurrentzat. Bertara joan nahi izanez gero 680 27 74 11 telefono zenbakira lehenbailehen deitzea eskatu dute; izan ere, izena emateko azken eguna bihar, ostirala, izango da.

XAKEA ▶
Gipuzkoako Liga amaituta, Tolosa-Ibarra zazpigarren
ERREDAKZIOA

Larunbatean Gipuzkoako taldekako ligako azken txanda jokatu zen. Gorengo mailan Tolosa-Ibarroa A taldea Eibarren izan zen. 1,5-2,5 irabazi zuen, S. Etxeberriak eta R. Etxeberriak irabazi eta Barojak berdindu eta gero. Azkenean zazpigarren amaitu dute sailkapenean. Iaz bigarren bukatu eta gero «zerbait gehiago» espero zen talde honengandik, baina ez da posible izan.

Hirugarren Mailan, Tolosa-Ibarra B taldeak 1,5-2,5 galdu zuen Irungo La Salleren aurka. Intxaurrendok irabazi zuen eta Mujikak berdindu. Igoera postuetatik kanpo geratu diren arren, urte bikaina osatu du bigarren taldeak; bere lehen urtean multzoko 3. amaitu du eta.

TELEFONOAK ▶
Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Munduko onenen artean

Teddy Martinez, bosgarren, eta Ekaitz Kortajarena, seigarren, Albaniako Torneoan

IMANOL GARCIA

Ekaitz Kortajarena eta Teddy Martinez pultsulari zizurkildarrek nazioartean lehiatzeko gaitasuna dutela erakutsi berri dute Albaniako Torneoan. Junior mailan —20 urte azpitik— munduko onenekin hartu dute parte eta banakako sailkapenean Teddy Martinezek bosgarren postua lortu zuen eta Ekaitz Kortajarenak seigarrena. Aipatzekoa da ere Kortajarenak bere pisuan —62 kilo— lehenengo postua lortu zuela eta Martinezek berean —85 kilo— bigarrena.

Bi zizurkildarrak Espainiako selekzioarekin joan ziren. Hirugarren kidea Gerard Sanchez kataluniarra izan zen —honek zazpigarren egin zuen banakako sailkapenean—. Hurrek lortutako puntuazioek taldeka bigarren sailkapena lortzeko aukera eman zien, Albaniako selekzioaren atzetik. Danena-Olaederrako bi pultsulariak egindakoarekin «oso gustura» azaldu da Batis Kortajarena, taldearen entrenatzailea. Albanian izan zen bera ere, eta «esperientzia positiboa» izan zela adierazi du. «Nazioarteko proba batean lehiatzea oso garrantzitsua da, beste herrialdeetan dagoen maila ikusteko».

Emaizta hobetzeko aukera

Bi pultsulariak gustura daude Albaniako Torneoak suposatutako esperientziarekin. Ekaitz Kortajarenak, baina, emaitza hobeto ateratzeko aukera zuela azpimarratu du: «Hasie-



Ekaitz Kortajarenaren saiakera bat Albaniako Torneoan. HITZA



Teddy Martinez, artxiboko irudi batean. HITZA

ran arratsaldean lehiatu behar nuen eta goizean lasai ibiltzea pentsatzen genuen. Baina, bat batean antolakuntzakoak deitu ziguten eta ordu erdi barru proba nuela esan zidaten. Urduri jarri nintzen, eta entrenatzeko lekua ere oso iluna eta deserosoa zen. Kostatu egin zitzaidan lehiaketan sartzea». Hala ere, bere pisuko lehen postua lortu zuen, baina bere

markatik 12 kilotara gelditu zen. «Amorrua ematen du, taldeka bigarren sei punturengatik bakarrik gelditu bainekin».

Teddy Martinezentzat «oso garrantzitsua» izan zen, bere lehen nazioarteko proba baitzen. Esan beharra dago, gainera, Albaniako Torneo junior mailan egiten den garrantzitsuenetakoa dela. Txinatarrek eta errusiarrak ez ziren joan,

eta agian selekzio guztietan ez zeuden pultsulari onenak, baina torneoko maila garrantzitsua da. «Edozein txapelketetan airoso irtetzeko gaitasuna dutela erakutsi dute», azaldu du Batis Kortajarenak.

Europakora joateko aukera

Torneo horretan lortutakoa txapelketarako bidea ere irekitzeko aukera eman diezaieke. Hurrengo Europako Txapelketa datorren urrian izango da. Zaila da hara joatea, emaitza eta markak lortzeaz gain, Espainiako Federazioak gastatu nahi duen diruaren arabera joateko aukera baitute. «Zaila da ekipo guztia eramatea», dio Kortajarena entrenatzaileak. «Federazioak duen diruaren arabera pultsulari kopuru jakin bat eramango du, eta gehien destakatzan dutenak aukeratu dituzte. Nik uste dut Ekaitzek eta Teddyk aukerak dituztela Europako Txapelketara joateko».

Hurrengo hitzordua, baina, Espainiako Junior Txapelketa dute. Bakoitzak bere pisuan irabazteko aukera du, eta horretara joango dira. «Txapelketan erakutsi behar duzu zure ahalmena», dio Ekaitz Kortajarenak. «Sevillako [Espainia] pultsulari bat izango dut aurkari zuzena». Martinezek ere garbi du lehenengo postua eskuratzeko aukerak dituela eta horretan saiatuko da. Txapelketa horretan lortutako emaitzak ere Europako Txapelketa joateko bideak irekitzeko balioko die eta, beraz marka, ona egiten saiatuko dira.

GERTAERA ▶

Hilotza topatu dute Amasako Troska inguruetan

Herrizaingo Sailak ez du konfirmatu oraindik gorpuren identifikazioa

ERREDAKZIOA

Gizonezko baten gorpua aurkitu zuten herenegun arratsaldean Amasan, Troska izenez ezagutzen den inguruan. Lehen ikerketen arabera, Orencio Moreno 77 urteko zizurkildararen gorpua izan daiteke. Moreno urtarrilaren 2an desagertu zen, eta azkeneko aldiz Villabonan ikusi zuten. Herrizaingo Sailak ez zuen atzo arratsaldean, erredakzio hau itxi aurretik, hilotzaren identifikazioa ofizialki ezagutarazi. Ertzaintza Morenoren bila ibili zen Oria ibaian zehar, Villabonatik Zizurkilera bidean bertara erori zelakoan, baina ez zuten gorpurik aurkitu.

Urtarrilean beste desagertu baten berri ere jakin zen Villabona. Urtarrilaren 24tik 41 urteko Alejandro Urkiaren berri ez zekitelako azaldu zuten haren senideek.

Arratsaldeko seiak inguruan aurkitu zuten Amasan gorpua, eta Udaltzaingoa eman zioten aurkikuntzaren berri. Hauek Ertzaintzari deitu zieten eta patruila bat hilotza zegoen lekura joan zen. Suhiltzaileak ere joan ziren hara, eta haien laguntza beharrezkoa izan zen, gorpua zegoen lekura iristea zaila baitzen.

Orain, eskuak bere lekuan



Esku libreko kita



Motorola V360
Bluetooth-a, Biko-karrea, GPS

= 0* €



San Francisco, 19
Tolosa
☎ 943 688 126

ALTZO ▶ POLITIKA

Laguntzera joan, ihesi itzuli

Indigenen protestak bultzatzea leporatu diete Ekuadorrera joandako EHuko hiru Biologia ikasleri, tartean Lorena Uriarte altzotarra, eta etxera itzuli behar izan dute

JAKES GOIKOETXEA - BERRIA

Ekuador. Oihana. Indigenak. Ameriketako Estatu Batuak. Merkataritza Askearen Ituna. Euskal Herriko hiru biologo. Gobernuak Kanpoko Erakundeak. Polizia. ETA. Eta Espainiako Atzerri Ministerioa. Itxuraz, horietako askok ez dute elkarrekin lotura handirik; duela astebate, orde, guztiak elkarrekin lotu dituzte, Euskal Herriko hiru kooperante erdi-erdian harrapatu dituen katramila batean.

Haritz Beasain, Maitane Unzu eta Lorena Uriarte EHuko biologia ikasleak iazko urriaren 4ean joan ziren Ekuadorrera. Pastaza probintziako Sarayaku herrira. Amazonian. CCOO sindikatuaren Bakea eta Elkartasuna GKEren bitartez sei hilabeteko lana egin behar zuten indigenei laguntzen lurarren kudeaketan, ingurumenaren babesean.

Haritz Beasain, Maitane Unzu eta Lorena Uriarte EHuko biologia ikasleak iazko urriaren 4ean joan ziren Ekuadorrera. Pastaza probintziako Sarayaku herrira. Amazonian. CCOO sindikatuaren Bakea eta Elkartasuna GKEren bitartez sei hilabeteko lana egin behar zuten indigenei laguntzen lurarren kudeaketan, ingurumenaren babesean.

Bost hilabetearen guztia ongi joan zen. Itzulera prestatzen hasi zirenean sortu ziren arazoak. Bazuten indigenen protesten berri, ikusi ez bazituzten ere: Gobernuak Merkataritza Askearen Ituna sinatu nahi du AEBekin, baina indigenak aurka daude eta grebak eta protestak egin dituzte erreferenduma eskatuz.

Beasainek, Unzuk eta Uriartek Puyora deitu zuten (Pastazako hiriburua), bertara joateko hegazkina kontratatatzeko. Orduan jakin zuten euskaldun batzuek protesta martxa batean parte hartu zutela.

Martxoaren 20an, astelehenean, Puyoko taberna bateko terrazan zeudela bi ezagun azaldu ziren. Mezu bat zutela esan zieten euskaldunei: Ekuadorko Gobernuaren bilera batean Beasain, Unzu eta Uriarte



Ekuadorko militarrek eta indigenak, aurrez aurre, protesta batean, marxoaren 23an.

aipatu zituzten eta Polizia beren bila ari zen. «Bileran esan zuten ETako kideak ginela eta protesta martxak antolatu genuela», dio Barañaingo (Nafarroa) Maitane Unzuk.

Ohiko salaketa

Ez zuten esandakoa sinistu, guztia «barre egiten» kontatu baitzieten. Bileran aipatu zituztela baieztatu ahal izan zuten arren, ez ziren gehiegi larritu. «Akatsa» zela uste zuten. Altzoko (Gipuzkoa) Lorena Uriarteren esanetan. Gainera, jakin zuten lehenago ere Sarayakura joandako kooperante euskaldunei edo kataluniarrei ETako kideak izatea leporatu izan dietela, «bertatik bota ahal izateko».

Beasain, Unzu eta Uriarte ostatura itzuli ziren. Astearte goizean ostatuko telebistan entzun zuten Polizia hiru koope-

JAZARPENA

Poliziak atxilotzeko agindua zuen, eta telebistan argazkiak eta izen-abizenak erakutsi zituzten

rante euskaldunen bila ari zela. «Pentsatu genuen agian gu izan gintezkeela, itxura guztia zuela», gogoratu du altzotarra.

Sarayaku herriak Puyon duen bulegora joan ziren. Idazkaria oso urduri zegoen, ikusi zituen arte ez baitzuen hiru euskaldunen berri. Agian atxilotuta zeudela uste zuen. Esan zuten Felipe Vega Gobernu ministroak hitz egin zuela beraiei buruz: «Esan zuen Bakea eta Elkartasuna GKEk mobilizazioak finantzatu zituela, gure bizidetz», dio Unzuk.

Telefono deiak etengabeak izan ziren: Bakea eta Elkartasuneko ordezkariena, EHUKoena... Kontuz ibiltzeko esan zieten, ez ateratzeko kalera. Puyoko gotzaina era bisitatu zuten, eta irratian beren izenak entzun zituzten ordurako.

Espainiako enbaxadatik deitu zuten. Enbaxadoreak galde-tu zien ea Ekuadortik atera nahi zuten. «Orduan konturatu ginene ez zela broma», nabarmendu du Uriartek. Zirt edo zart egiteko ordua zen, eta Ekuadortik ateratzea erabaki zuten. Enbaxadako ordezkariak Quitora eraman zituzten asteazkenean, eta konfiantzako lagun baten etxean pasatu zuten gaua. Quitoan beren izen-abizenak eta argazkiak ikusi zituzten telebistan.

Hurrengo goizean, ostegunean, enbaxadara eraman zituzten aurrena, eta «ia-ia hegazkineraino» gero. Airepor-



Inguruaren mapa. HITZA

tuan topatu zituzten indigenen protestetan parte hartu zuten euskaldunak, beraiek bezala Ekuadorrera laguntzera joandakoak. Aireportuan ez zieten elkarrekin hitz egiten utzi, baina hegazkinean izan zuten elkarren berri.

«Gobernuak erabili gaitu»

Euskal Herrira itzuli eta aste-betera, irribarre artean oroitzen dituzte Ekuadorren gertatutakoak. Pentsatzeko denbora izan dute. «Ni ez naiz gertatu denaz konsziente izan», dio Uriartek. «Sustoa pasatu dugu, baina ez dut gu atxilotzeko arriskurik ikusi». Benetan beren atzetik bazebiltzan atxilotzea erraza zela gehitu du Eibarko (Gipuzkoa) Haritz Beasainek, ez baitziren ezkutatuta edo ihesean ibili. Gogaituta dago gertatutakoarekin: «Manipulatua sentituko naiz». Hori berretsi du Unzuk: «Ekuadorko Gobernuak erabili egin gaitu Sarayakuren eta indigenen kontra, Sarayaku oso dogon ari baita Gobernuaren eta petrolio konpainien kontra».

Oraindik ez dute Ekuadorko Gobernuaren azalpenik edo barkamenik jaso. «Esan ziguten onartu duela guk ez genuela ezer egin, baina ez duela esango egoera pixka bat lasaitu arte», dio Unzuk. «Gertatua argitzea nahi dugu, horrela ez gelditzea».

Bukaera tristea izan den arren, pozik daude Ekuadorren egindakoak eta ikasitakoak. «Egin beharreko lana egin dugu behintzat», nabarmendu dute hirurek. Bueltatzeak asmoa ez dute baztertu.

GOZOKIA

IBÁÑEZ-GOZONA gozotegitik gure bezeroei jakinarazten diegu, Gorosabel 8an kokaturik dagoen eraikineko botatze lanak dirauen bitartean Gorosabel 4ean (IFArean ondoan) izango garela.

Denda honetan ere kafetegia, gozotegia eta okindegia egongo dira. Orduetgia 07:00etatik 20:30era jarraian izango da astelehenetik igandera, astelehen arratsaldean itxita egongo delarik.

Telefono bidezko eskaerak ohiko telefono zenbakietan egin daitezke: 943 65 05 39 eta 943 65 18 35

-Barkatu eragozpenak-

Landare Berezien 4. Azoka
Iturrarango Larategi Botanikoa

AIA [GIPUZKOA] 1/2 DA 2006

Orduetgia: goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara
Somera 3/12 utetik beharrik ez dago

EXHIBITIO: ALICIA BILBAO, Ikeritza eta Zientzien Euskal Herriko Institutuko eta Larategi Botanikokoaren Ingurumen, Maltortza eta Espazioak

Tel: 943 611 081 - www.somera.org - www.azokak.com - www.azokak.com

KULTURA ▶

Ardi latxa euskal kulturarekin

Txileko gaztandegi bat lagundu ostean, Ibarako Alurr dantza taldearen proiektu berria sustatuko du orain Ardi Latxa kultur elkarteak



Alurr dantza taldeko ordezkariak, Ardi Latxa kultur elkarteko kidearekin. I. TERRADILLOS

ELOY ARSUAGA ▶ ARDI LATXA KULTUR ELKARTEKO KIDEA

«Desiatzen gaude jendearen proiektuei bultzadaxoa emateko»

Tolosaldeko 16 lagun inguruk osatzen dute Ardi Latxa kultur elkarte. Horietako bat da Eloy Arsuaga tolosarra.

Txantxa moduan sortu eta arrakasta itzela izan duzue. Espero al zenuten halakorik? Ez genuen inondik inora espero halako harrera izango zuenik. Gure asmoetan aurrera egiteko aukera ematen digu horrek.

Jende askok ez du, baina, asmo horien berri.

Bai, hala da, eta askok uste dute aberasten ari garela; baina ez da horrela. Euskal kulturarekin erlazionatuta dauden ekintzak bultzatzea izan da sorreratik izan dugun asmoa. Gainera, eranskailuak salgai dauden lekuetan, ardi latxaren esanahia azaltzen duten eta gure helburuen berri emateko.

ten duten kartelak jarri genituen.

Elkarte askok jo al du zuengana?

Oraingoz, bi proiektu baino ez ditugu lagundu, baina desiatzen gaude jendearekin harremanetan jarri, eta euren proiektuei bultzadaxoa emateko.

Nolako proiektuak izan behar dute?

Kulturarekin erlazioa izatea ez da beharrezkoa, baina hala bada, hobe. Alurr dantza taldearen kasuan, Tolosaldean euskal dantza sustatzeko egin duen lana kontuan hartu dugu, eta baita talde txikia izatearena ere, zailagoa izaten baitute diru laguntzak lortzea. **Nola jarri zuekin harremanetan?**

IÑIGO TERRADILLOS

Erdi bromazko kontu bat bezala hasi zen, eta egun Mallorcatik, Madrildik, Bartzelonatik, Poloniatik, Alemaniak, Frantziatik, AEBetatik... jasotzen dituzte eskariak. Ardi latxaren eranskailua auzoetan, motorretan nahiz kamioietan itxatxita ikustea oso ohiko bilakatu da.

Tolosaldeko 16 bat lagunek jarri zuten abian ekimena 2004ean, «era inprobisatu batean». Urte horretako abenduan banatu zituzten lehen eranskailuak. 2.000 ale atara zituzten, eta egunerarte 150.000 baino gehiago saldu dituzte. Urtebete ingururen bueltan, beraz, ustekabeko arrakastarekin egin dute topo. Hala, izan dituen ondorioak ikusita, ardi latxaren irudia erregistratu, eta pasa den urteko abuztuan Ardi Latxa kultur elkarte sortu zuten. Euskal kulturaren ezaugarrietako bat delako aukeratu zuten, hain zuzen, ardi latxa eranskailuetarako, eta ekimenaren helburuak ere zerikusi zuzena du euskal kulturarekin; izan ere, salmentekin lortutako diruarekin euskal kultura sustatzea izan baita sorreratik izan duten asmoa.

Alurr-en 10 urteez

10. urteurrena dela-eta Ibarako Alurr dantza taldeak DVDa kaleratu zuen, eta orain liburua ari da prestatzen. «Testu gutxirekin, astu-negia izan ez dadin, eta argazki ugariarekin, Alurr-en historia bilduko duen lana izango da, eta etorkizunerako hor geratzea da gure asmoa». Jende ugariarekin harremanetan jarri ondoren material ugari bildu ahal izan dute, argazkiak, grabazioak...; eta hori guztia baliatuz, Alurr-en historia ezezki, Ibarako dantzaren historiaren bilketa bat egin nahi izan dute. «Ibaran dantzak garrantzi handia izan du eta, horregatik, liburua herri honen historiarako oso baliagarria izango da». ◀

Eta asmo hori hasiak dira gauzatzen. Diruz lagundu duten lehendabiziko proiektua Txilen kokatzen da. Bertako irla batean badira ardi latxak, garai batean enpresa batek Euskal Herriatik eramana, eta txiletar batek eta euskaldun batek bildu egin dituzte eta gaztandegi bat eraiki dute, *Txi-lozabal* izeneko gazta egiteko.

Bigarren proiektua, berriz, Ibaratik iritsi zaie, Alurr dantza taldearen eskutik, hain zuzen. Dantza taldeko ordezkariak buru-belarri ari dira Alurr-en historia bilduko duen liburuarekin lanean, eta Ardi Latxa elkarteko proiektuak laguntzen zituztela jakin zutenean haiekin harremanetan jarri ziren; «ez dugu oraindik Ibarako udaletxeko diru laguntza, eta horregatik atzeratu egingo zaigu liburuaren kaleratzea; dena den, ardi latxak eta beste erakundeek emandako laguntzari esker aurrera egin ahal izan dugu liburuarekin, eta eskerrak eman behar diegu», azaldu dute dantza taldeko ordezkariak.

Hurrengo helburuak

Eranskailuek izan duten harrera ikusita, elastikoak, pizgai-luak, koadernoak, gosaltzeko katiluak... ateratzeko asmoa du elkarteak, «modu horretara, finantzatzeko aukera izango baitugu gure asmoekin aurrera egiteko». Dituzen helburuetan dago ere bi donostiarrekin batera egiten ari diren Euskal Herriko ardi latxa gida. «Euskal Herriko gida turistiko bat izango da, beste era batera kontatua, eta historia uztartuko duena».



I. TERRADILLOS

Gure web orrian, www.ardilaxa.org, argibide guztiak agertzen dira. Bertan idatzi behar dute talde edo elkarteek euren datuak eta proiektuari buruzko informazioa. Ondoren guk erabakitzen dugu interesgarria izango litzatekeen ala ez.

iragarki laburrak ▶

LANA

Ileapaintzailea. Ileapaindegirako langilea behar dugu, lanegun erdirako. Bidali curriculum eta argazkia Tolosako lurre auzoa 20, 3.B helbidera.

SALGAI

Lokalak. Leitzan, lokalak eta garajeak salgai. Eraikuntza berrian. Interesatuak deitu 637 80 60 44 telefono zenbakira.

POLITIKA ▶

Eneko Aizpuru aske geldituko da gaur

Segi-ren aurkako auziagatik oraindik espetxean dauden lau lagunetatik hiru aterako dira kalera egunean zehar

JAIONE ASTIBIA

Eneko Aizpuru leitzar preso politikoa gaur aterako da kalera. Askatasunak igorritako oharren ariora eta elkarreak berak HITZARI berari ere atzo berean baieztatu zionez.

Segi-ren aurkako auziagatik oraindik preso dauden lau gazteetatik hiruk espetxeak gaur utziko dituzte, «bakoitzari ezarritako 60.000 euroko bermea ordaindu ondoren». Leitzarra-ekin batera, Oier Oa eta Gari-

koitz Mujika aterako dira kalera. Laugarrenentzat, Araitz Zubimendirentzat, epaileak ez du aske uzterik onartu, nonbait «beste kausa batengatik 2 urteko zigor irmoa duenez». Bere defentsako abokatuak «ezezko erabaki horren aurkako helegitea tartekatu» duela baieztatu du, ohar berean, aitatutako errepresioaren aurkako elkar-reak.

Hala, beste bi lagunekin batera, Aizpuruk gaur utziko ditu atzera Soto del Realeko (Espai-

nia) espetxeko ateak eta Euskal Herrirako bideari ekin. Senideak harantz bila joatekoak ziren, egunkari honek atzo jakin ahal izan zuenez. Bermea ordaindu eta epaileak espetxeko arduradunei aske uzteko agindua eman arte itxaron beharko dute, ordea, elkarrekin izateko.

Aizpuru iazko uztailean Baionan atxilotu eta Espainiara eraman zuten preso, estradituta, Segi gazte antolakundean militatzeagatik.

ARESO ▶ KIROLAK

Areso-Nuarbe lasterka apustua azpeitiarrentzat

Azkoitia-Azpeitia maratoi erdian parte hartu dute lagunartean, aurten bigarren aldiz

J. ASTIBIA

Aresoko eta Nuarbeko sokatira taldeek elkarri erronka bota eta apustua jokatu berri dute. Lasterka, ordea.

Pasa den larunbatean egin zuten Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia eta han parte hartu zuten bi taldeetako ordezkariak, launa bakoitzetik. Irabazi «aisa gainera», halaxe baieztatu diote HITZARI Aresoko taldeko kideek, azpeitiarrek egin zuten: «Guk bukatzerako, 40 bat minutu lehenago ailegatu ziren haiek helmugarara», zehaztu zuten. Hala, apustua- ren jendaurreko lanetan, Nuarbek irabazi zuen lehia.

Baina apustuan lasterketa baino gehiago ere beste «eginbehar» batzuk sartuta

omen zituzten. Lasterketan parte hartzea bi taldeak elkar- tu eta «eguna lagunartean igarotzeko aitzakia» omen da, «beti dago norgehiagokarako irriki hori baina», baieztatu zuten.

Beste «lanak», afaria eta ondorena zituzten. Horietan, «mahai inguruan berdinketa eta ondorenean, guk irabazi genuen», zehaztu zuten umoretsu aresoarrek.

Kontuak kontu, soka-tira denboraldiari laster ekinen diote guztiek ere, «maizta, ekainerako jada lanean ariko gara», adierazi zuten Aresoko ordezkariak. Heldu den astean bertan dute federazioarekin bilera, besteak beste aurtengo egutegia zehazteko helburuz.

AISIALDIA ▶

Ludoteka ireki dute jada Leitzan eta heldu den astean eginen dute Areson

Umeez lekua eta ludotekaria ezagutzeko baliatu dute lehen eguna

J. ASTIBIA

Ludoteka ireki berria «gustura» ibili ziren haurrak Leitzako udaletxeko balio anitzeko aretoan. Herenegun zuten aurreneko eguna eta bihar, berri, bestea. Ikasturteari eman diote hasiera Leitzako umeez. Sarri Aresokoek eginen dute.

Hala, astean bitan, asteartean eta ostiraletan eta eguneko ordu pare batez, bostetatik zazpitarra, jostaketa eta eskulan artean dabilta Leitzako umeez. Haur Hezkuntzakoak dira denak, 14; aurreneko egunean gutxi xago baziren ere.

Euskara Zerbitzuko teknikariak adierazi duenez, bestalde,



Txokoak ezagutzen eman zuten lehen saioa umeez. JAIONE ASTIBIA

heldu den astean, Areson ere ludoteka irekiko dute. Hemen, astelehen eta asteazkenetan

dute hitzordua egina, 17:00etik 18:00etarako tarte horretarako.

LEITZA ▶

Leitzatik Bilbora manifestaziora joateko autobusa

Leitzatik autobusa antolatuko dute, heldu den larunbat honetan bertan. Bilboko manifestaziora joateko. Euskal Herriko gehiengo sindikalak, Batasunak, Eusko Alkartasunak, Aralarrek eta beste hainbat gizarte eragilek (guztira 13 dira), deitu dute mobilizaziora. *Konponbiderako garaia da. Euskal Herria. Erabakia. Adostasuna* lelopean, Bilboko Aita Donostia plazatik, 17:30ean aterata. Bihar da, bertara autobusez joan nahi duenarentzat, izena emateko azken eguna, Torrean. Larunbatean, ohiko lekutik, 14:30ean aterako direla iragarri dute.

LEITZA ▶

Obra-hondakinak jasotzeko Udaleko nabea irekiko da

Obren hondakinak jasotzeko beste modu bat jarri du Leitzako Udalak aurrerantzera, bandoaren bidez jakinarazi duenez. Horrela, etxetan obrak egin eta sortzen diren hondakinak, komunitateko altxariak barne, jasotzeko asmoz Landa indutaldea, Udalarena den nabea irekiko dute, astean hirutan: astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, 08:30etik 09:30era. Han bertan dagoen kontenedorera bota behar dira hondakin mota hauek. Aurrez, ordea, 012 telefono zenbakira deitu behar dute interesatuek, «eguna zehazteko».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu-Lizartza-Tolosa-Zizurkil. *Konponbide garaia da* lelopean, etzi Bilbon egingo den manifestaziorako autobusak: Asteasukoa plazatik, 15:15ean (izen-ematea, tabernetan eta 615 70 87 32an). Tolosakoa 15:30ean, Triangulotik. Lizartzakoa 15:30ean, Joxe Mari aparkalekutik. Zizurkilgoa, 15:30ean, Joxe Arregi plazatik (izen-ematea Iriarte, Zentroa eta Aurrera tabernetan).

Orendain. Xabier Amurizak *Lazkao txiki* bertso emanaldia eskainiko du. 15:30ean, Eltxo elkarte. Galtzaundik antolatuta.

Tolosa. Beloso-Oteizak promozioako partida jokatu dute, 19:30ean, Beotibaren.

Tolosa. Samaniego ikastetxearen eta Kolonbiako Guillermo Leon de Valencia eskolaren arteko anaitze ekitaldia, 16:45ean. Rosalia Espinosa de Reyes kolonbiarrak *Mendia bizi dadin* proiektua azalduko du.

Tolosa. Atsedena aisialdi taldeak apirilaren 18-19-20an Gaintzara joateko irteera antolatu du katekesiko haurrentzat. Joan nahi izanez gero 680 27 74 11ra deitu behar da. Izena emateko azken eguna, bihar.

Tolosa. *Orain herria, orain bakea.* 20:00etan, udalbatzar aretoan.

IKUS-ENTZUNEZKOA

Ibarra. Turkiako preso politikoei buruz. 19:30ean, Kultur Etxean. Ibarrra Herri Ekimenak antolatuta.

ZINE-KLUBA

Tolosa. *Solo ante el peligro.* 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa.*
21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari.*
22:00-23:00. *Gau bero* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Emakumearen Eguna soinean

TOLOSA ▶ Gero eta emakume gehiago ikusten da 'Tolosa elkarbide' lelodun kamiseta berdea jantzita, hiriko «espazioak eta denborak orekatuak» egoteko



Hauek dira Tolosako Udalak Emakumearen Nazioarteko Egunean egindako kamisetak. I. TERRADILLOS

NEREA URBIZU

Iragan da jada aurtengo Emakumearen Nazioarteko Eguna, baina ez egun horretarako atera zituzten kamiseta berde alai deigarriak erabiltzeko.

Tolosako Udaleko Berdintasunerako teknikari Jone Hernandezek esan bezala, Emakumearen Nazioarteko Egunean «kanpaina toki askotan egiten da, gehienetan paperetan eta iragarkietan». Baina Udalak era ezberdin batean eman nahi

zuen ezagutzera leloa: «Kamisetarena estrategia ona iruditu zitzaigun, azken finean, erabiltzen den zerbaite da, eta komunikatzeko tresna egokia».

Aurtengo leloa, kamisetetan ikus daitekeen moduan, *Tolosa elkarbide* da; orokorrean, hirian edo herrietan ikusten diren espazio eta denborak ez daude banatuta era orekatu batean.

Teknikariaren hitzetan, «gizonezkoek gauza batzuk eta emakumeek beste batzuk egiten dituzte, eta idealena hiri

orekatu eta konpartitu bat lortzea izango litzateke».

Inplikazioaz eta aukeretat mintzo dira, «inplikaturako gizarke arlo guztietan»; hau da, kultur, ekonomia, hezkuntza... Eta inplikazioa bai gizoni eta baita emakumei ere. Horrez gain, «aukerak» ere egon beharko lirateke, «batez ere emakumeen kasuan».

Hurrengo urteari begira, honiek erantzun ona jasoz gero, «kamiseta berri bat ere atera liteke»; izan ere, «pozik» daude kamiseten ideiarekin, estrate-

gia ona delako. «Horrez gain, kostua ez da askoz ere altuagoa izan, kartelak egitearekin ez da horrenbeste alderatzen, eta mezua ez da paper soilean geratzen», gaineratu du Hernandezek.


Kamisetak martxoaren 8rako egin bazituzten ere, Udalak urtean zehar eskaintzen dituen ikastaro eta ekitaldietan opartu eta banatu egin nahi dituzte.

Beraz, emakumeen kamiseta erabiltzea besterik ez da falta, eguneroko gogoan izateko leloa baita.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Eneko Artola (Tolosa). Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.



URTE ASKOAN
Jon Eskisabel (Alegia). 7 urte. Urte askoan ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Eider Aramendi (Anoeta). Gaur 11 urte betetzen ditu. Ebekoen partetik, zorionak!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...